
9 milioi erizain eta emagin gehiago behar dira

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Erizainen eta Emaginen Nazioarteko Urtea izendatu du 2020a. Haren hitzetan, zeregin erabakigarria dute osasungintzan erizainek eta emaginek, harreman zuzena eta eraginkorra baitute herritarrekin. Hortaz, 2030erako garapen jasangarriaren helburuak gauzatu eta osasun-estaldura unibertsala lortzeko, [munduan 9 milioi erizain gehiago behar direla jakinarazi du OMEk](#). Batetik, pazienteak zaintzeko baliabide gehiago izan ditzaten; bestetik, osasun-politikan parte hartu eta erantzukizun-postuetan ardurak har ditzaten.




ARG.: Flickr.

2030rako garapen jasangarriko helburuen artean daude, besteak beste, familia-plangintzako zerbitzuetarako sarbide unibertsala ziurtatzea; bost urtetik beherako haurren heriotza-tasa % 2,5era murriztea; hiesaren, tuberkulosiaren eta malariaren epidemiak amaitzea; botika eta txerto seguruak denon eskura jartzea; substantzia adiktiboek gehiegizko erabilera saihesteko neurriak indartzea; eta nabarmen murriztea airearen, uraren eta luraren kutsaduraz gaixotutako eta hildakoen kopurua. Hala, OMEk dio erizainak XXI. mendeko osasun-erronken erdigunean jarri beharko liratekeela. ●

Litekeena da Artizarrean sumendi aktiboak egotea

1990ko hamarkadan, Artizarrak sumendi ugari dituela erakutsi zuten *Magallanes* zundaren radar bidezko irudiek, baina ez zekiten aktibo ote zeuden ala aspaldi itzalita, Marten gertatzen den bezala. Hamar urte geroago, *Venus Express* zundak erradiazio infragorritz egindako behaketek erakutsi zuten bazeudela jarduera bolkanikoa daukala esateko zantzuak. Eta, orain, frogatu dute laba-jario oso gazteak dituela.

Ondorio horretara iristeko, Artizarreko atmosfera sortu zuten laborategian, eta planetaren azaleko mineralak denborarekin nola eraldatzen diren iker-tu dute. Horrela, ikusi dute olibinak (erupzioetan sortzen den mineral bat) azkar erreakzionatzen duela atmosferarekin, eta magnetitaz eta hematitaz estaltzen dela. Laborategiko aldaketak bat egiten du Artizarrean behatutakoarekin. Hortaz, ikerketek iradokitzen dutena egia balitz, eguzki-sisteman gaur egun jarduera bolkanikoa duen bigarren planeta izango litzateke. [Science Advances aldizkarian argitaratu dute ikerketa](#). ●



Artizarreko Imdr eremuko Idunn sumendiaren tontorra.
ARG.: ESA/NASA/JPL